


Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2. Plana



Irakurketa Erraza



1. Zer da Plana hau?

2. Nola garatuko da?

3. Plana eta helburuak

1

Zer da plan hau?

Zer da, nola egin da, nori eragiten dio, zenbat iraungo du

Zer da plan hau?

Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioak (EHDSF)


lan egiten du pertsona guztien berdintasunaren alde,
baita laneko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean ere.

Gainera, hainbat legek eskatzen die enpresei

Sexuagatiko diskriminazioaren aurkako planak egiteko.

Horregatik, EHDSFk egin du

langileen artean berdintasuna bilatzen duen plan hau.



Nola egin da plan hau?

Plan hau egiteko Berdintasun Batzordea sortu da.

Batzorde honetan parte hartu dute:

- enpresa-batzordeko 3 pertsonak
- zuzendaritzako pertsona batek
- 2 langilek

Pertsona horiek bildu dira

eta ados jarri dira plan hau egiteko.



Nori eragiten dio plan honek?

Planak **EHDSFn** lan egiten duten pertsona guztiei eragiten die.

Baita aldi baterako laneko enpresetan lan egiten duten
eta Fundazioan bere lana egiten duten pertsoneri ere.



Zenbat iraungo du plan honek?

Berdintasun Planak **4 urte** iraungo du.

2022an onartu zen, beraz **2026ra arte** iraungo du.

4 urte horiek pasa ondoren,

plan berri bat negoziatu beharko da.

Plan berria onartu arte,

plan hau indarrean egongo da.



2

Nola garatuko da?

Egutegia, ebaluazioa eta berrikustea

Egutegia

Egutegi bat egingo da
planak irauten duen 4 urteetan
egingo diren **jarduera guztiekin**.



Ebaluazioa

Plana ebaluatzeko, **urtero bilera bat egingo da.**

Bileran egindako jarduerak
zer eragin izan duten ikusiko da.

Beharrezkoa bada, Berdintasun Batzordearekin
aparteko bilera egingo dira.



Berrikustea

Plan hau berraztertuko da, gauza hauek gertatzen badira:



- Berrikustea aurreikusita dagoenean, urtean behin eta plana bukatzean.



- Legea betetzeari uzten dionean edo Lan Ikuskaritzak hobetu behar dela esaten duenean.

Berrikustea



- Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioak beste erakunde batzuekin bat egiten badu.



- Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioan funtzionamenduan edo lanaren antolakuntzan aldaketa handiak daudenean.



- Epaile batek esaten badu EHDSFk ez duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatu.

Berrikustea

Plana berraztertzeko,
negoziatu zuen Batzordea berriro bilduko da.
Egin behar diren aldaketak adostuko ditu.

Plana betetzen ari den moduari buruzko desadostasunik badago,
Batzordea bilduko da eta plana betetzeko
behar diren erabakiak hartuko ditu.





3


Plana

Programak, helburuak
eta betetzen dituen legeak

Plana eta helburuak

Plan honek **10 programa** jarriko ditu martxan Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioan lan egiten duten emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

Programa bakoitzak helburu bat du, zerbait zehatza lortu nahi du.



Plana eta helburuak



1. Programa : **Lidergoa eta estrategia**

Helburua da ziurtatzea EHDSFn

emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea
ideia nagusia dela.



2. Programa: **Komunikazio inklusiboa**

Helburua da lan-giro bat sortzea pertsona guztiek
bai emakumeak, bai gizonak berdin tratatuak direna
eta aukera berberak eskaintzen zaizkiena.

Plana eta helburuak



3. Programa: Lana lortzea eta kontratatzea

Helburua da Fundazioaren lan-postu guztietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua lortzea.



4. Programa: Sustapen profesionala

Helburua da Fundazioaren erantzukizun-maila guztietan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua lortzea.

Plana eta helburuak

5. Programa: Soldata-politika



Helburua da emakumeek eta gizonek bera kobratzea lan bera edo balio bereko lana egiteagatik, hitzarmen kolektiboak dioena errespetatuta.



6. Programa: Kontziliazio arduratsua

Helburua da Down Fundazioan lan egiten duten pertsona guztiek bizitza pertsonala eta familiarra lanarekin bateratu ahal izatea.

Plana eta helburuak

7. Programa: Lan osasuna eta arriskuen prebentzioa



Helburua da EHDSFn lan egiten duten emakumeei eta gizonei berdin tratatzea eta aukera berdinak ematea osasuna zaintzeko eta laneko arriskuen prebentziorako.

8. Programa: Prestakuntza eta sentsibilizazioa



Helburua da emakumeek eta gizonek karrera profesionala modu berean garatu ahal izatea, desberdintasunik gabe.

Plana eta helburuak



9. Programa: **Inguruarekiko harremanak**

Helburua da EHDSF eredu izatea gizartearentzat eta beste erakundeentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan.



10. Programa: **Zerbitzuen kudeaketa**

Helburua du FSDPVk eskaintzen dituen zerbitzuak genero-ikuspegitik hobetzen jarraitzea.

Horrela, emakumeek eta gizonek Fundazioak dituen baliabide eta zerbitzuetarako sarbidea izango dute modu berean.

Zein lege betetzen ditu plan honek?


Plan hau egin da hainbat legek

laneko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz diotena betetzeko.

Hauek dira legeak:

- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena.
- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen soldata berdintasunari buruzkoa.
- 901 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituena.





 Euskal Herriko
DOWN
Sindrome
Fundazioa
eta beste adimen urritasunak